

JALGI HADI MUNDURA

Euskarak eta euskal kulturak badute dagoeneko kanpo zabalkunde ahalbideratuko duen tresna: Etxepare Euskal Institutua. Bere sorrera-legea 2007ko apirilaren 20an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak.

Etxepare Euskal Institutuaz mintzatzeko, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordekin izan dugu aukera.

Q1 NOREN EKIMENA IZAN DA ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA?

Ekimena Eusko Jaurlaritzak bultzatu du, Jaurlaritzari baitagokio lege proposamena egitea; Legeak Eusko Legebiltzarrak egiten ditu, eta zentzu horretan esan ekimena Legebiltzarrarena ere badela; are eta gehiago honetan gertatu den bezala Sorrera Legea aho batez onartu denean.



Etxepare Euskal Institutuaren hazia aspaldi eren zen. Eusko Jaurlaritzan euskara eta euskal kulturaren kanpo zabalpenaz arduratuko den erakunde baten beharra urteetan landu dugu. Berez, honen inguruko proposamena 2001eko Eusko Jaurlaritzaren Gobernu egitasmoan azaltzen zen eta aurreko legealdi osoan landu da.

Horrekin batera, joan den legealdian etorkizunean Etxepare Euskal Institutuak landu beharko dituen hainbat alor jorratzeari ekin zitzaion. Horrexegatik esan izan dugu Institutuak ez duela bere lana hutsetik hasiko eta ez duela bere lana bakarrik egin beharko. Legez sortu ondoren, Etxepare Euskal Institutuak bere gain hartuko eta garatuko ditu lehenagotik Jaurlaritzak lantzen dituen hizkuntza eta kultura alorreko zabalpenerako lanak.

Etxepare Euskal Institutuaren garapeneren bidean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak euskara eta euskal kulturaren irakurletzak sortu ditu Europa eta Amerikako hainbat unibertsitatetan. Ildo berean eta honekin batera, Kultura Sailak, HABE erakundearen bitartez, abian du "Euskara munduan" Euskal Herriatik kanpo helduentzat ematen diren euskara eskolen garapenerako egitasmoa.

Kulturaren beste alorrean, Etxepare Euskal Institutua arian-arian lankide izango da edo eta bere gain hartuko ditu literatura eta liburugintza alorrean kanpo zabalpenari begira hainbat azokatan egiten diren parte hartzeak. Halaber, ikus-entzunezko alorrean Kultura Sailak zuzenean eta beste batzuekin elkarlanean gauzatzen dituen euskal ikus-entzunezkoen kanpo zabalpenerako ekintzak (Kimuak, Niniak eta abar) bultzatuko ditu eta hor Euskadiko Filmategia lankide izango du. Arte Plastikoen alorrean Etxepare Euskal Institutuak Gure Arte sariaren kanpo zabalpena bultzatuko du.

Q2 ZER IZANGO DA ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA?

Alde batetik, euskara, euskal herriaren identitatearen funtsezko elementua, kanpoan sustatu, bultzatu eta hedatuko du Etxepare Euskal Institutuak.

Bestetik, kanpoko kultura-aniztasunari eta unibertsaltasunari irekitu agertzeaz gain, euskal komunitatea bere identitate kulturalari eutsita proiektatuko da kanpora, bere adierazpen eta ageribide guztietan; bi hizkuntzatan esprezaten den kulturari orain artekoa baino proiektio handiagoa eman nahi diogu.

Zintzoki aitortuaz bi hizkuntza ditugula hemengoak, modu berean aitortzen da biak ez daudela oraindik ere maila berean. Batean eta bestean sortzen den kulturak ez dituela ez aukera berak ez eta zabalkunde bera ere. Horrexegatik, Institutu berriak, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatu eta bermatuz jardungo du.

Ez dugu ahantzi nahi, ordea, bi hizkuntza izan arren hemengoak, egunetik egunera indar eta behar handiagoz, beste hizkuntza batzuk ere badirela "hemengoak".


Q3 ZER DATIK ETXEPARE? EUSKARA "JALGI HADI MUNDURA" ESALDIAGATIK?

"Jalgi hadi mundura" lelo ezin hobea du euskara eta euskal kulturaren kanpo zabalpena xede duen erakundeak. Argi dago XXI. mendean Europar Batasunean txertaturik dagoen herri txiki honek kanpo zabalkundearen beharra baduela. Botere publikoek badagokie hemengo idazle, zinegile, dantzari, eskultore, margolari, eta abarri beren lana mundu zabalean ezagutzera eman dezaten laguntzea. Botere publikoek badagokigu euskarari eta euskal kulturari munduko unibertsitateetako atak zabaltzea. Botere publikoek badagokigu gure errealitatea euskaraz hitz egiten duten kolektibitateetara eta hainbat herritarrengana hurbiltzea.

Eta leloarekin batera, hori sortu zuen Etxepareren izena hartu du Euskal Institutuak. XVI. mendean Bernat Etxeparek, mundura jalgitzeko agindua eman zion euskarari. XXI. mendean, inoiz baino gehiago, mundu zabalean txertaturik bizi da euskal gizartea. Ez dugu munduari bizkar emanda bizi nahi, hartu eta eman egin nahi dugu, trukea aberastasuna delako. Badugulako zer emana, zer irakatsia, baina baita ere zer hartua eta zer ikasia. Euskaldunok munduan egon nahi dugu, ez daukagu besteek baino gauza hoberik, ez okerragorik. Guk gurea dena, gure hizkuntza eta gure kultura aportatu nahi dugu. Jakinda beti ere, zabaldu nahi ditugun leihoak eta atak ez direla norabide bakarrekoak, gurea eman eta bestetatik jaso nahi baitugu.

BERNART ETXEPARE

Ustez Sarrasketan (Nafarroa Beherea) jaioa (~1493 - ?). Bere bizitzari buruzko berri askorik ez badago ere, Eiheralarreko (1518) eta Donibane-Garaziko bikarioa izan zen. Etxepare izan zen euskaraz inprimatutako lehen liburaren egilea: *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordelen 1545ean argitaratua. Euskal olerkigintza idatziaren aitzindaria izan zen eta liburuen hitzaurrean bertan aipatu zuten arabera, Etxeparek bazekien lehen euskal idazlea zela eta horretaz harro zegoen. Guztiz hizkegra herritarra erabili zuen eta sortaldeko behe-nafarreraz idatzi zuen.



MERKATARITZA ARLOAN EUSKARA SUSTATU ETA NORMALTZETAKO HITZARMENAK

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eta Bilbo, Donostia eta Gasteizko udaletako ordezkariak hitzarmenak izenpetu dituzte, merkataritzako dinamismoa eta euskararen erabilera areagotzea uztartzeko xedez.

Hitzarmen horien sinadura ekitaldia maiatzaren 8an izan zen Donostian. Bertan, honako ordezkari hauek izan ziren: Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Jokin Azkue Arrastoa, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria; Ana de Castro Rubalkaba, Bilboko Udaleko Kultura eta Euskara zinegotzi ordezkaria; Alfredo Iturricha Yaniz, Gasteizko Udalaren Lehendakaria arloko zinegotzi ordezkaria; eta Ramon Etxezarreta Aizpuru, Donostiako Euskararen Udal Patronatuko lehendakariaren ordezkaria.

Q1 HITZARMEN HAUEN INGURUMARIAK

Euskararen erabilera segurtatzea da datozen hamar urteetako erronkarik nagusiena Administrazioarentzat, hau da, euskara helduaroko eremu berezi eta garrantzikoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliagarri bilakatzea belaunaldi berrietako euskaldunentzat. Helburu hori lortuko badugu, besteren artean, arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatu beharra dago. Arlo horren barruan, besteren artean, establezimendu komertzial handiak, banketxeak eta aseguru-eteak, ostalaritza eta zerbitzugintzari loturiko gainerako establezimendu-motak hartu dira kontuan. Izan ere, ukazina da merkataritza sektoreak zer-nolako garrantzia duen hirietako konfigurazioan eta bertako herritarren bizitzan bai dinamika ekonomikoan, baita sozialean ere. Are gehiago hiri hori hiriburua bada.

Horregatik, bada, iaz hasitako bideari jarraiki eta koordinazioa erdietsi nahian, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hitzarmenak sinatu eta lankidetzan jardutea erabaki du Bilboko Udalarekin, Gasteizko Udalarekin eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuarekin, hiru hiriburuotako merkataritza sektorean euskara sustatu eta normaltzeko ekintzak gauzatzera.

Izan ere, hiriburuak oso garrantzitsuak dira euskararen erabilera areagotzeko, administrazio eta merkataritza gune dinamikoan baitira eta betetzen dituzten funtzioek lurralde osoari eragiten baitiote. Hori gogoan, euskarak bere tokia behar du hiriburuotako merkataritza sektorean harreman sareak eratu eta funtzio horiek aurrera eramateko garaian.

Hiriburuetan garatuko diren egitasmo hauek abiapuntu izan nahi dute. Eta aurrerantzean, helburu bera aintzat hartuta, gainerako hirietako merkataritza sektoreri hedatuko dira erabilitako baliabideak, metodologia edota lan tresnak.

Q2 AURTENGO LANAK

Oro har, euskararen erabilera areagotu nahian, honako lan hauek egingo dituzte aurten hiru hiriburuotako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorean: hizkuntzaren egoera aztertu (jarrera eta iritzia, ezagutza eta erabilera) eta, diagnostiko horretan oinarrituta sentsibilizazio, formazio eta komunikazio arloetan lan-ildoak proposatu, euskararen normalizatzeko plangintza diseinatu, kudeatu eta jarraipena egin; hori bai, betiere bertako merkataritza sektoreko eragileen parte hartzea sustatuz eta koordinatuz.

Q3 EGITASMOEN AURREKONTUA (2007)

2007. urtean, Bilboko egitasmoaren aurrekontua guztira 120.000 eurokoa izango da; Gasteizkoa 100.000 eurokoa izango da; eta Donostiakoa 43.459 eurokoa.

Q4 HIRIBURUETAKO EGITASMOAK

Bilboko Udalak aurrera eraman nahi duen egitasmoan hiru alor estrategiko hartuko dira kontuan: irudia, prestakuntza eta komunikazioa. Gasteizko Udalan ere, lehentasunezkoa da merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorean eragitea eta horretarako euren egitasmoaren barruan lehenbizi sektore horretako hizkuntza egoera (ezagutza, erabilera eta jarrerak) aztertu nahi dute. Ondoren etorriko dira komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak, eta prestakuntzan eragitekoak. Donostiako Euskararen Udal Patronatuak, berriz, honako bi helburu estrategiko hauek jorratuko dira: lan munduan euskara erabiltzeko interesa eta kontzientzia piztu eta saritzea eta lan munduko eragileei euskararen erabilera bultzatzeko behar dituzten baliabideak eta lanabesak eskuratzea.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hitzarmen honetan, besteak beste, honako konpromiso hauek hartu ditu: diru ekarpena egin; metodoa finkatu ostean, erabilitako baliabideak, tresnak eta metodologia hedatu; eta hizkuntza aholkularitza eskaini du.



ERRAMUN OSA, Koordinaziorako zuzendari berria

Erramun Osa Zizurkilén jaió zen, 1964ko abuztuaren 22an, izatez baina, ondarrutarra da, umetan hara joan baitzen bizi izatera. Egun, Durangaldeko Garai herrian bizi da. Bilboko Atxuriko eskoletan hasi zen helduei euskara irakasten 80ko hamarkadaren hasieran. AEKn jardun du hainbat urtez: euskara irakasle, pedagogia zerbitzuetako buru, Bizkaiko AEKren arduraduna (1991-2001) eta abar. 2001eko urritik aurrera Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko Hizkuntza arduraduna izan da. 1996 urtetik aurrera Euskararen Aholku Batzordeko kide eta osteko berrikuntzetan, kide ez ezik, Euskararen Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-ataleko buru ere izan da. 2003an, Sustapen batzordeko kide izendatu zuen Euskaltzaindiak, eta egun batzorde horren idazkaria da. Soziolinguistikaz, ikaskuntzaz eta irakaskuntzaz nola baita irakasleen prestakuntza-prozesuez ikertu eta idatzi du, baita hainbat libururen zein artikuluren egile edo egile-kide ere bada. Hedabide batzuetako iritzi orrialdeetako ohiko kolaboratzaile ere badugu gaur egun.



Irudia: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko (Xema Garzia Urbina).

Koordinaziorako zuzendari berria zara. Lehenengo eta behin, zorionak. Zer asmorekin ekingo diozu jarduerari?

Eskerrik asko. Legegintzaldi honen hasieran Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2009 aldirako egitasmoa aurkeztu zuelarik, gizaritearen aurrean Kultura Sailak hartutako konpromisoak bete daitezkeen berebiziko ahalegina egiten diharduen taldean lanean jardutea egokitzten zait niri. Niri dagozkidan zereginetan, beraz, taldea elikatzea, ezarritako dauden helburuetara hurreratu gaitzen nire ardurapean dauden zerbitzuak eta dinamizatzea eta gidatzea dagokit, talde-lanean arituz, pertsonen inplikazioa bilatuz eta haien ekarpena kontuan hartuz, betiere. Bai Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan nola baita nire ardurapean dauden zerbitzuetan jende gaitua eta eragimen handikoak ikusten ditut. Horiek horrela, nire ukitua ematen, erritmoa jartzten ere ahaleginduko naiz.

Zeintzuk izango dira zure egitekoak?

Nire aurretik urteetan jardun duen Miren Mateok lan handia egin du eta hainbat egitasmo abian dira, jadanik. Eginkizunak asko eta askotarikoak ditudan arren, hainbatetan jarriko dut atentzioa, batez ere. Batetik, Eusko Jauriaritzaren gidaritzapean, herri-aginteen koordinazioa eta elkarlana sendotzea (HAKOBA) hizkuntza politika kontuetan. Bestetik, Hizkuntza politikaren arloan egindako-az eta egin beharrekoak hausnarketa bultzatzea eta ahal baldi, beharrezkoa denetan, adostasun sozial eta politikoko berri bat tarteko, estrategiak, lehenetasunak, lan-ildoak birdefinitzea, besteak beste, berriaz sortutako egituren eta Euskararen Aholku Batzordearen bitartez. Hirugarrenik, alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko saio sistematizatuak bultzatzea: esperientzia pilotuak, euskararen presentzia eta erabilera neurtzeko adierazleak, bikaintasun prozesuekin lotutako ziurtagirien sistema eraikitzea eta abar. Azkenik, bilakaera soziolinguistikoaren berri izateko ikerlanak bultzatzea.

Zure ustez zeintzuk dira oro har euskararen behar nagusiak gaur egun?

Irakaskuntzan, Administrazioan eta abar euskararen indarberritzeak bide luze eta emankorra egin du orain arte. Egindako horretan arazoak, hutsuneak, desorekak, inplikazio desberdinak, hankasartzeak eta abar gertatuko ziren ziurrenik, eta horiek guztiek galga antzean jokatu dute, emaitzak are hobekian izan daitezkeen ezinezko bihurtuz. Eremu horietan urrats are gehiago ere egin behar dira, etorkizunean, baina, esparru pribatuan, ohiko diren eguneroko jardun-uneetan, hizkuntza guztiek, beraz, gu-txiagotutako hizkuntzek ere haien biziraupena, ez alegiazkoa egiazkoa baizik, jokatzeko duten horretan euskararen indarberritzea doa geldoen. Familian, lagunartean, kalean, aisialdian, espazio sozio-ekonomikoan euskararen presentzia areagotu, bizkortu gabe, erabilera eremuak irabazi gabe gure hizkuntzaren egin du, alferrekoak dira gainerakoak, atzera aurrera gainbehera etorriko baita. Espazio pribatuan eragin ahal izateko, oster, Legeak, Dekretuak edota Aginduak bainoago askotarikoak diren herritarren borondateak ez ezik jokabideak ere badira erabakigarriak. Horiek horrela, besteak beste, euskararen aldeko politikan adostasun politikoaren eta sozialaren zorua zabaltzea, erdaldunak euskararen aldeko jardunera erakartzea eta inplikatzeko erabakigarria da.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jauriaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Sailleko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Legezko gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038



AZKARATE SAILBURUA ETA BAZTARRIKA SAILBURUORDEA ORBAN KOMISARIOAREKIN BILDU DIRA BRUSELAN

Miren Azkarate Kultura sailburua eta Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordea Leonard Orban Eleanitzasunerako Europar komisarioarekin bildu ziren maiatzaren 16an Bruselan. Bertan, 2005-2009 legealdirako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren jardunbide nagusien berri eman zioten. Halaber, Eusko Jauriaritzak lankidetzara arloan bideratu dituen bi ekimen aurkeztu zizkieten: batetik, Eusko Jauriaritzaren eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko mugagandiko hitzarmena; bestetik, Eusko Jauriaritzaren, Kataluniako Generalitatearen eta Galizako Xuntaren arteko lankidetzara-hitzarmena. Azkenik, euskararen erabilera Europar Batasuneko erakunde eta organoetan jorratu zuten.



Eskerrik asko: Ipar Mendebaldeko, Ipari Ingarren, Leonard Orban, Miren Azkarate, Patxi Baztarrika eta Lurpe Bileko.



SOFTWARE PRODUKTU BERRIAK EUSKARAZ

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzeko lan-lerroari jarraituz, Eusko Jauriaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bi produktu kaleratu berri ditu: "OpenOffice.org 2.2.0" bertsioa eta "Miatu erraz liburutegia".

OpenOffice.org 2.2.0 bertsioa, hau da, kode irekiko bulegotikako paketea honako sistema eragile hauetan erabiltzeko dago erata: Debian GNU/Linux (eta Debian-en oinarritutako Euslinux, Ubuntu, e.a.), RedHat Linux (eta RedHat-en oinarritutako Fedora, Suse, Mandrake, e.a.), MacOS X (bai Intel bai PowerPC arkitekturak) eta Windows. Oraingoz interfazea bakarrik dauka euskaratuta. Laguntzako fitxategiak euskaratzea eta konpilatzea uztailean burutuko da.

Miatu erraz liburutegia web guneetan euskarazko bilaketak hobetzeko tresna da. Euskararako lematizazio teknika aurreratuak erabiltzen ditu bilaketak egiteko.TXT eta HTML formatuetan euskarazko hitzak bilatzeko aukera eskaintzen du.

Programa hau ez da erabiltzaile arruntek erabiltzeko modukoa, web garatzaileek erabiltzeko liburutegia baizik. Horregatik, programa honi etekin handiena ateratu ahal izateko, nahitaezkoa da web-ak garatzeko ezagupen teknologikoak edukitzea.

Bi produktuok, eta beste hainbat software produktu, www.euskara.euskadi.net helbidetik deskarga daitezke, "Euskarazko softwarea deskargatzea" atalean, hain zuzen.



07 EKAINA

Ostirala

01

Larunbata

02

Igandea

03

Astelehena

04

Asteartea

05

Asteazkena

06

Osteguna

07

Ostirala

08

Larunbata

09

Igandea

10

Astelehena

11

Asteartea

12

Asteazkena

13

Osteguna

14

Ostirala

15

Larunbata

16

Igandea

17

Astelehena

18

Asteartea

19

Asteazkena

20

Osteguna

21

Ostirala

22

Larunbata

23

Larunbata

30

Ostirala

29

Osteguna

28

Asteazkena

27

Asteartea

26

Astelehena

25

Igandea

24

